

## EUSKAL HERRIKO ETA MUNDUKO 50 URTEKO KRONOLOGIA (1895-1945)

Aita Gabirel Jauregik ez zituen 50 urteak bete izan; edozelan ere, oraingoan atzera begiratu gero, erlijio eta kulturaren inguruan burututako jarduerak, eta irakaskuntzan egindako lanek bezala euskal liburuak argitaratzeak haren bizitza bete zutela esan dezakegu.

1895-1945: aita Gabirelek jazoera asko bizi izan zituen; berak ez ezik, Elizak eta gizarte osoak ere berebiziko egitateak izan zituzten. Gizarte eta politikaren inguruan asal-dapen asko jazo zen, barbarako, iraultzak eta diktadurak, gudak eta ankerkeriak, teknika-ren aurreramentu izugarriak eta gizakumeen izatearen atzerakunde are negargarriagoak: izan ere, pertsona askoren arteko gorroto suhartsua ikusi zen, eta milioika pertsona hil zituzten, munduan guda bi bizi izan ziren bitartean.

Aita Gabirel guda baino lehentxoago ageri zen, baina gudak eta gudaondoak amata-tuko dute.

Munduaren egoera honetan Eliza Orokorra hazi zen, hainbat gobernuk gizarte eta kulturaren inguruan ezarri zioten isolamendua gora-behera, jazargo guztiak gora-behera... hainbat herrialdetako elizek maiz egoera lazgarri eta ulertugabeak pairatzen zituztelarik; hala ere, Elizak txiro eta behartsueneren aldeko mugimenduak defendatu zituen, ze gizaku-meen benetako aurreramentua bultzatu nahi izan zuen.

Kronologia honetara azalduko den garaian, Euskal Herrian, Elizan, gizartean, kultu-ran, zientzian... egundoko garrantzia duten jazoerak ditugu. Bereziki, literaturari dagokio-nez, Euskal Herriarekin lotura gehien duten herrialde bietako idazlanak sartu ditugu, hau da, Espainia eta Frantziakoak, euren jatorrizko izenburuekin (itzulpenik eman barik); beste herrialdeetakoak direnaz bezanbatean, Alemania sartu dugu besteen neurriaren gai-netik, jatorrizko izenburua eta, parentesi artean, itzulpena dituztelarik; beste hizkuntzeta-koak, berriz, euskarazko itzulpenekin doaz: gehienetan guk itzultitako testuekin, eta beste-etan, euskaraz argitaraturik badaude, bertan eroan duten izenburuarekin.

Kronologia hau egiteko, jarraiko liburuok erabili ditugu: KURT M. JUNG, *Weltges-chichte in einem Griff*, Berlin 1979, 1.288 orr.; *Crónica de la humanidad*, Bartzelona 1987, 1.184 orr.; *Crónica de España*, Bartzelona 1988, 2. liburukia; GERTRAUDE WIL-HELM, *Hermes Hand Lexikon. Synchronopse der Weltliteratur*, Düsseldorf 1983, 288 orr.; *L'Histoire et ses méthodes* (Encyclopédie de la Pléiade), Bruges 1961, 1.774 orr.; GEOR-GES BUBY [Zuz.], *Histoire de la France. Les temps nouveaux de 1852 à nos jours*, Paris 1994, 687 orr.; O. de la BROUSSE — M. HENRY — Ph. ROUILLARD [Zuz.], *Diccionario del cristianismo*, Bartzelona 1986, 1.103 orr.; eta MIGUEL ARTOLA [Zuz.], *Enciclopedia de Historia de España, VI, Cronología, Mapas, Estadísticas*, Madril 1993, 1.241 orr. Horie-kin batera aztertu ditugu Euskal Herriaren gainean diharduten beste liburu batzuk ere.

J. Urkiza - A. Lobera